

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.**1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.**

1985eko Hiri Antolaketako Arauetan ez dago aurreikusia.

1.2. HIRI EGITURA.

Debako hiri egitura eratzen duen elementua da, herriko plazetako bat izaki, bai kokapenagatik bai barne hartzen duen ekipamenduagatik.

Esparru barruko espazioak titularitate publikokoak dira.

1.3. ESPARRUAREN AZALERA. 2.929 m²**2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarra.

2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : KOMUNITATEAREN EKIPAMENDUKO ZONA: SANITATE ETA ASISTENTZIAREN LAGUNTZA : (11. ARTIKULUA: G.5).

2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Oraingo Hiri Antolaketako Arauak finkatuko dira.

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Eguneko Zentroaren eraikina eta erabilera finkatzea, eta baita bertako lorategiak ere.

Sistema orokorreko lurzatian lurpeko aparkalekuak egitea ahalbidetzea.

Zaharren egoitzaren ezarpena ahalbidetzea. Proiektuaren arabera, gaur egungo egoitzak har dezakeena baino lurzoru okupazio handiagoa behar bada, aipatu egoitza 2 SO unitatean paratu beharko da.

Interes kultural-arkitektonikoko ibilbidean (3 KII) sartzea.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Komunitatearen ekipamenduko sistema orokorra: gizarte ekipamendua.

Kultur esparru bat eta haren ingurunea kalifikatzean, hala izendatutako kultur ondasunen eta horien ingurunearen babes erregimena errespetatu beharko da, eta erabilera baimenduek beti ere ondasun horiek mantenduko direla bermatu beharko dute.

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Euskal Kultur Ondarearen Legeari jarraituko zaio.

3.3. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Ez da ezarri. Zaharren egoitza edota lurpeko aparkalekuak eginez gero, proiektu arkitektoniko baten arabera izango da. Nolanahi ere, Eguneko Zentroa handitzea, aurreikusteko modukoa dena, Hirigintza Araudiko 115. artikulua bidez arautuko da.

Eraikuntza. Eraikina eta haren ingurua finkatzea.

Erabilera Soziala: Eguneko zentroa. Zaharren egoitza.
Oinezkoentzako berdegunea orain dagoen eraikinaren inguruan.
Aparkamendua.

3.4. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Dagozkion obra proiektuen arabekoak.

3.5. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Aipatu esparruan edozein esku-hartze egiteko, jabari publikoko lurretan eragiten duenez, beharrezkoa izango da dagozkion emakidak edo baimenak edukitzea eta Hiri Antolaketako Arau hauetan kasu bakoitzerako adierazitako zehaztapenetara lotzea.